



# RECacciona

## #EGK30aukera, gazteok zenbat? Bideo lehiaketa

Egin al dizkiozu inoiz zure buruari **honako galderak**? Zein da gaur egungo gazteen egoera? Zer arazori egin behar diegu aurre? Nola aldatu da gazteen egoera 30 urte hauetan? Zeintzuk dira lehen ematen ziren erronkak eta gaur egun sortzen direnak?

Lan munduaren diseinuan, **eraikuntzan eta kudeaketan genero ikuspegia txertatzearen beharra argia iruditzen zaizu?**

Pertsona gazteok **lan baldintza txarrenak** izaten jarraitzen dugula uste duzu? **Prekarietate egoeraren** bat bizi izan duzu zure lan esperientzian?

**Baliabide ekonomiko gutxi duten gazteek** ikasteko aukera bermatua dute indarrean dagoen beka sistemarekin?

**Gazteon parte-hartzea bermatu behar dela iruditzen zaizu?**

**Ordezkarri politikoei** gazteriaren egoerari buruz zer bait esan nahi diezu? Honi guztiari aurre egiteko **proposamenen bat** bururatzen al zaizu?

**Adierazi ezazu bideo batean!** Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik, bideo lehiaketa abiatu dugu, **“RECacciona. #EGK30aukera, gazteok zenbat?”** lelopean. Hauxe da nahi duguna: egun gazteok bizi dugun egoerari buruz eztabaida sustatu, zu bezalako pertsona eta elkarteen artean, eta sortzen diren ideiak administrazioetara helarazi.

**Sari bikainak ditugu, parte hartuko duzu?**

- **Gutxienez bi** pertsonaz osatutako taldea egin.
- **Izen emate orria** bete.
- **Gehienez 4 minutuko** iraupena duen bideoa egin.
- **Youtubera** igo eta bidal ezazu lotura eta artxiboa WeTransfer bidez [komunika@egk.org](mailto:komunika@egk.org) emailera ekainaren 4a baino lehen



## Oinarriak

### 1. Helburua

Gazteok gaur egun dugun egoerari buruzko eztabaida sustatzeko abiatu du lehiaketa hau Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, baita gazteek gai honen inguruan dituzten ideia eta ikuspuntu ezberdinak jaso eta zabaltzeko ere.

### 2. Gaia

Lehiaketaren gaia honako hau da: "**RECacciona, #EGK30aukera, gazteok zenbat?**". Bideoek, gaiarekin lotura dituzten gazteen ekarpenak eta hausnarketak jaso behar dituzte, galdera hauetariko bat edo batzuei erantzuna emanez:

- Zure ikuspuntutik, egokia al da gaur egun dugun hezkuntza sistema?
- Zein da gaur egungo gazteen egoera?
- Zer arazori egin behar diegu aurre?
- Nola aldatu da gazteen egoera 30 urte hauetan?
- Zeintzuk dira lehen ematen ziren erronkak eta gaur egun sortzen direnak?
- Lan munduaren diseinuan, eraikuntzan eta kudeaketan genero ikuspegia txertatzearen beharra argia iruditzen zaizu?
- Pertsona gazteok lan kondizio txarrenak izaten jarraitzen dugula uste duzu?
- Prekarietate egoeraren bat bizi izan duzu zure lan esperientzian?
- Baliabide ekonomiko gutxi duten gazteek ikasteko aukera bermatua dute indarrean dagoen beka sistemarekin?
- Gazteen parte-hartzea bermatu behar dela iruditzen zaizu?
- ... eta honen inguruan bururatzen zaizkizun bestelako ideiak.

Gogoratu EGKren eginkizuna gazteekin zerikusia duten politika publikoetan eragina izatea dela. Horregatik, gazteen etorkizuneko erronka eta aukerak lantzen dituzten bideoek lehentasuna izango dute.

### 3. Parte-hartzaileak

**16-30 urte bitarteko** pertsona guztiek parte har dezakete, gutxienez bi pertsonaz osatutako taldetan. Talde batean 18 urte beherako norbait baldin badago, adin nagusiko pertsona bat izango da taldearen arduraduna, eta hala adieraziko du izen-emate orrian.

### 4. Bideoen ezaugarriak

Proposatutako gaiarekin bat etortzeaz gain, honako baldintzak bete behar dituzte bideoek:



- Aurretik **argitaratu gabeak** izan behar dira.
- **Euskaraz, gaztelaniaz edo bi hizkuntzetan** izan daitezke. Gaztelaniaz izatekotan, euskararen presentziaren bat bermatu beharko da (adibidez azpitoluetan, kredituetan, animazioetan...).
- Bideoaren hasieran **lehiaketaren kareta** jarri behar da. Lehiaketan izena ematerakoan jasoko dute hasierako irudia parte-hartzaileek.
- **Gehienez lau minutuko** iraupena izatea, kareta eta kredituak barne.
- **Youtubek** onartutako formatuetako batean egotea.
- Irudi eta soinu guztien **eskubideak libreak** izan beharko dira edo, bestela, titularraren **baimenaren** ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ez ditu indarkeria, sexismoa, homofobia eta arrazakeria edukiak edo pertsonen oinarrizko giza **eskubideak urratzen** dituzten bideoak onartuko. Era berean, EGK-k ez du izango bideoen edukien eta iritzien gaineko ardurarik.

Genero guztietako bideoak onartuko dira: argazki-muntaketak, antzerkia, dokumentalak, bideo-komikiak, ilustrazio animatuak, ikus-entzunezko olerkia, kronika... Edozein gailu erabili daiteke (argazki-kamera, bideokamera, mugikorra...).

## 5. Lehiaketaren faseak

- **Izen emateak**: ekainaren 4a arte.
- Bideoen bidalketa: ekainaren 4a arte.
  - Bideoa **Youtubera** igo eta bidali lotura [komunika@egk.org](mailto:komunika@egk.org) helbidera.
  - Gainera, artxiboa WeTransfer bidez [komunika@egk.org](mailto:komunika@egk.org) emailera ekainaren 4a baino lehen
- **Epaimahaiaren erabakia eta publikoaren bozketak**: ekainaren 21a arte.
- **Sari-banaketa eta sarituen jakinarazpena**: ekainaren 30a baino lehen.

## 6. Sariak

Honako sariak banatuko dira:

- **Lehenengo saria: 1.000 euro**, hezkuntza mailan dituzun ideia eta planak aurrera eramateko, ala zure parte-hartze proiektuetan gastatzeko\*.
- **Bigarren saria (publikoak aukeratutako saria): 400 euro**, hezkuntza mailan dituzun ideia eta planak aurrera eramateko, ala zure parte-hartze proiektuetan gastatzeko\*.
- **Ikusleentzat saria: 50 euro** bidezko merkataritzako saltoki batean gastatzeko.

\*Zertarako erabili daitezke lehenengo eta bigarren sariak?



- **Parte-hartzearekin** lotura duen **formazioa edo ikastaro bat egiteko**.
- Parte-hartze mailan dituzun **idea eta planak** aurrera eramatek..
- Parte-hartzearekin zerikusia duen **proiekturen bat gauzatzeko** (bideo bat grabatu, argazki-erakusketa bat egin, koreografia bat muntatu, argitalpen bat editatu, jardunaldi batzuk antolatu...).
- Gazteekin lotura duen ekimen bat edo elkartegintza esperientzia bat **ezagutzeko bidaiatzea**.
- Elkarte edo gizarte mugimendu batean **ekintzak** antolatzeko.
- **Brigada** batean parte hartzeko, Hegoaldeko **lankidetz**a proiektu batean parte-hartzeko, bidaia solidario bat ala elkartrukeak egiteko...
- Elkarte bati, gizarte proiektu bati edo Gobernu Kanpoko Erakunderen bati dirua **emateko** edo kolektibo batentzat **materiala** erosteko.
- Bururatu ez zaizkigun ekimenetarako (zure ideia izen emate orrian aipatu).

Parte hartzaileek saria zertarako erabili nahi duten gutxi gora behera aurreratu beharko dute [izen emate](#) orrian. Zalantzaren bat izatekotan, [komunika@egk.org](mailto:komunika@egk.org) helbidera idatzi edo 943 429767 telefonora dei dezakete. Dena den, behin saria jasotakoan ideiaz aldatzekotan, saria erabiltzeko beste ideien bat aurkeztu diezaiokete parte-hartzaileek Gazteriaren Kontseiluari.

Sariak emateko, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak honakoa egingo du: irabazleen proiektu edo ideien **gastuak ordaindu**, sariaren zenbateko osoa gastatu arte (inprenta, hegazkin-txartelak, ikus-entzunezko materiala... edo parte-hartzaileek aukeratu dituzten bestelako gastuak). Saria 2016eko azaroaren 27a baino lehen erabili behar izango da.

Proiektu edo ideien ezaugarriak direla-eta, eraginkorragoa ikusten badu, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 1.000 euroko **txekea** emango die lehenengo sariko irabazleei, eta 400 euroko txekea bigarren saria jaso dutenei. Ondoren, sarituek diru hori alde aurretik zehaztutako proiektu edo ideian gastatu dutela justifikatu behar izango dute, 2017ko ekainaren 30a baino lehen.

Ikusleentzako saria ere 2016eko abenduaren 18a baino lehen erabili behar izango da. Zozketa honen oinarriak Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren atarian argitaratuko dira ([www.egk.org](http://www.egk.org)), 2016eko ekainaren 10a baino lehen.

## **7. Epaimahaia**

Honako kideek osatuko dute lehiaketaren epaimahaia: Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko bi kide eta EGK-ko presidentea eta komunikazio teknikaria.

Honako irizpideak izango ditu kontutan epai mahaiak:

- Bideoak lehiaketaren **oinarriak** betetzea.
- Lanak proposatutako **gaia** ondo adieraztea.
- Mezua **jatorrikoa** eta **sortzailea** izatea.
- Kalitate teknikoa bigarren mailako irizpidea izango da.



Oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten lanak baztertzeko eskubidea du epaimahaiak.

Epaimahaiaren erabakia zehazteke dagoen leku eta egun batean emango da argitara.

## **8. Legezko alderdiak**

Izena ematerakoan parte hartzaileak lehiaketaren **oinarriak irakurri eta ulertu dituela** adierazten du. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztien **onarpena** adierazten du. Parte hartzaileak izango dira bideoetan azaltzen diren pertsonengatik irudi eskubideak direla eta izan daitekeen edozein erreklamazioaren erantzule bakarrak. Bideoan adingabeak agertzen badira, lehiakideek pertsona horien tutoreen baimena aurkeztu beharko dute.

Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoaren arabera, parte-hartzaileek izen-emate formularioa bidaltzerakoan Gazteriaren Kontseiluari emandako datu pertsonalak lehiaketarako beharrezkoak diren izapide eta gestioetan kudeatzeko baimena ematen diete.

Lehiaketan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote EGKri materiala, doan eta egoki ikusten den edozein euskarritan **hedatzeko, banatzeko, erakusteko, publikoki komunikatzeko**, zabaltzeko eta erreproduzitzeko.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak lehiaketa honetako oinarriak edozein mementotan **interpretatzeko edo aldatzeko** eskubidea du, baita saria eman gabe uzteko eta lehiaketa bera bertan behera uzteko ere, betiere tartean neurri hori bidezkotzen duen arrazoiren bat bada. Edozein kasutan, EGK-k oinarri hauetan eman daitekeen edozein aldaketa, eta bere kasuan, lehiaketa osoaren baliogabetzea bide honen bidez komunikatzeko konpromisoa du parte-hartzaile guztiek informazio hori eskura izan dezaten.

### **Kronograma**

**Izen-ematea eta bideoen bidalketa:** ekainaren 4a arte.

**Bozketak eta epaimahaiaren erabakia:** ekainaren 21a arte.

**Sarien jakinarazpena eta sari-banaketa:** ekainaren 30a baino lehen.